

KOSTU EGITURA

HASIERAKO INBERTSIOA		PREZIOA
BALIABIDE EZ MATERIALAK	LANTOKIKO/BILTEGIAREN LEHEN ALOKAIKUA	750€
	ENPRESA SORTZEKO GASTUAK	84€
LANTOKIKO ALTZARIAK ETA MATERIALA	MAHAIK (lanerako 2 eta bileretako mahaia)	50x3=150€
	AULKIAK	60x3=180€
	APALATEGIAK	20x6=120€
	BULEGOKO MATERIALA (arkatzak, folioak, boligrafoak, grapagailuak...)	100€
GAILUAK	SISTEMA TEKNOLOGIKOAK (<u>Ordenagailuak</u> , mugikorra eta inprimagailua)	<u>194x4=776€</u> <u>159x4=636€</u> 259€
HASIERAKO INBERTSIOKO KOSTUAK		3.005€

Egingo ditugun inbertsio guztiak, hala nola, bulegoko materiala gure funts, mailegu eta dirulaguntzen bitartez finantzatuko ditugu. Geratzen zaizkigun euroak langileentzat gordeko dira enpresaren gainbehera ekonomikoa gertatuz gero.

Behin enpresa martxan jarri ondoren, materialetan egindako inbertsioak atzean utziko ditugu eta hileroko gastuetan bakarrik gastatuko dugu, kostu finkoetan eta aldakorretan banatzen ditugunak.

KOSTU FINKOAK	PREZIOA
WEBGUNEAREN DOMEINUA/HOSTING	10€
LANTOKIKO/BILTEGIAREN ALOKAIKUA	700€
BILTEGIAREN ASEGURUA	300€
WIFI ZERBITZUA	120€ urtean
FINANTZA-GASTUAK	1.000€
PATENTEA MANTENDU	150€
LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA	200€
KOSTU ALDAKORRAK	PREZIOA
ELEKTRIZITATEA	150€ inguru
URA	50€ inguru
BULEGOKO MATERIALA	10€ inguru
FUNTZIONAMENDU KOSTUAK	2570€

Kostu finkoen barruan gure webgunearekin lotutako gastuak, Wi-Fi, alokairuak, edozein motatako tragedia saihesteko aseguruak, langile zein influencerren ordainsariak, finantza gastuak eta azkenik amortizazioak aurkituko genituzke. Kostu hauek finkoak direla esan dezakegu sozietate mugatuaren produkzioa gorabehera ez direlako aldatzen.

Bestalde, kostu aldakorrak ditugu, hau da enpresaren ekoizpenaren arabera aldatzen diren kostuak. Horien artean sartzen dira kasu honetan elektrizitatea, ura eta bulegoko materiala diren hornidurak. Eta, amaitzeko, gure produktua egiteko ezinbestekoak diren lehengaiekin eta bestelako hornikuntzekin egiten dugu topo.